

Etxarri Aranatz, Zer? MANIFESTUA

2012ko abenduaren 3an, Nafarroako Egunaeta Euskararen nazioarteko eguna ospatzen dugun honetan, herrian ditugun udal agintariengana jo nahi dugu, ondoko aldarrikapen eta eskaerak formalki aurkezteko:

Etxarri Aranatz herri anitza da. Anitza da bere paisaia, eta anitza bertan bizi garenon pentsakera. Denok dugu leku bat bertan eta denon artean osatzen dugu Etxarri Aranatz.

Litekeena da manifestu honen alde egiten dugunok Euskal Herria osoarentzat, zein Nafarroarentzat proiektu, egitura nahiz etorkizun ezberdinak nahi izatea. Baina demokrazian oinarritutako printzipio baten aldeko jarrerak biltzen gaitu, giza eskubide zibil eta politiko guztiak errespetatuz, autodeterminazioaren edo erabakitze eskubidearen aldekoak, hain zuzen ere.

Hauxe da gure aldarrikapena:

- Euskararen herria nazio naturala da.*
- Nafarroak eta Euskal Herriak bere osotasunean bere etorkizuna erabakitze eskubidea du.*
- Nafarrok, Euskal herritar orok dugu autodeterminatzeko eskubidea.*
- Eskubide demokratiko unibertsala denez, nonahi eskubide honen eskaera egingo dugu.*
- Hau da Etxarri Aranazko herritarrei luzatu nahi diegun galdera:*

“Ados al zaude Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerrria izanda, Europako estatu independente berri baten parte izatearekin?”

- Beraz, Etxarri Aranazko Udal Agintariei etxarriarrok eta orohar euskal herritarrok gure etorkizuna erabakitze eskubidea bermatzea eskatzen diegu. Herri honek hitza eta erabakia behar ditu bere etorkizuna eraikitze. Udalari eskubide hori onartu eta bermatzeko beharrezkoak diren neurriak ematea eskatzen diogu.*

Etxarri Aranatz, 2012ko abenduaren 3an